

Egile eta Editoreen Elkarteak (SGAE)
eta SGAE Fundazioak lehiaketa honetan parte hartzeko,
deialdia egin dute

JAZZ OBRETARAKO SGAE-REN TETE MONTOLIU V. LEHIAKETA 2024-2025

Genero honetako musikagileen sorkuntza bultzatu
eta aintzatesteko asmoz

OINARRIAK 2024-2025

- Lehiaketarako gutun-azal itxien sistema erabiliko da.
- Saria obrari emango zaio, ez egileari.

1. Jazz generoko lanak aurkeztu ahal izango dira (tradizionala, be-bop, cool jazz, free jazz, garaikidea, abangoardia, fusioa, eta abar.), SGAEko kide diren musikagileek sortuak, adin mugarik gabe.

2. Musikagile bakoitzak **jatorrizko obra argitaragabe bakarra aurkeztu ahal izango du**, saritua izan ondoren bere edizioa baldintzatuko lukeen konpromisorik gabe. Obra jatorrizkoa izan behar denez, ez dira onartuko besteren obren zatiak erabiltzen dituzten obrak. Besteren obra-zatiak barne hartzen dituzten obrak lehiaketatik kanpo geratuko dira.

Lehiaketara aurkeztutako obra ez da izango aurrez estreinatutakoa, publikoaren eskura jarritakoa edo inola ere zabaldutakoa. Besteak beste, ezin izango dira aurkeztu obra hauek: ikus-entzunezko euskarrietan edo euskarri fonografikoetan erabiliak izan direnak; Internet bidez jendearen eskura jarri direnak; kontzertuetan jotakoak; ikus-entzunezko lanetan sinkronizatutakoak; Estatuko edo nazioarteko beste lehiaketa batean sarituak izan direnak.

3. Musikagile batek baino gehiagok idatzitako obrak onartuko dira, hau da, egilekidetzan idatzitakoak. Hala bada, eta egile batek baino gehiagok sortutako obra bat sarituz gero, sariaren diru-kopurua horien guztien artean banatuko da, zati berdinetan, egilekideen artean bestelako akordiorik ez badago. Akordio hori SGAE FUNDAZIOARI jakinarazi beharko zaio, guztiek sinatutako idazki baten bidez.

4. **Bakarlari, bikote, hirukote** edo **laukoteentzako** obrekin lehiatu ahal izango da, honako musika tresna hauek modu askean nahastuz:

Pianoa (interprete 1)
Kontrabaxu akustikoa edo baxu elektrikoa (interprete 1)
Bateria / perkusioa (interprete 1)
Gitarra
Saxoa / Klarinetea / Flauta
Tronpeta
Tronboia
Ahotsa

Obren **iraupena** gutxienez **lau minutukoa** izango da, eta gehienez **zazpi minutukoa**. Baldintza hori zorrotz kontrolatuko dute antolatzaileek, lanak epaimahaiari eman aurretik.

5.

Lehiaketak fase hauek izango ditu:

- a) Obrak aztertzea, eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu dela eta oinarrietan baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Lehiakideak lehiaketatik kanpo geratuko dira, baldin eta dokumentazioa oinarri hauetan ezarri bezala aurkeztu ez badute edo iraupen-irizpideak bete ez badituzte.
- b) Epaimahai batek obrak aztertzea; oinarri hauetan deskribatuta dago epaimahaiaren osaera.
- c) Obra finalistak aurkezteko azken kontzertua: 2024ko azaroaren 7a eta 8a, Sevillako Antzoki Zentralean, azaroko Jazz Zikloaren esparruan azaroan Antzoki Zentralean.
- d) Tete Montoliú Lehiaketaren, esleipenaren eta sari banaketaren azken emaitzaren jendaurreko komunikazioa azaroaren 8an egingo da Sevillako Antzoki Zentralean, azaroko Jazz Zikloaren esparruan, Antzoki Zentralean.

6.

Lehiakideen anonimotasuna zaintze aldera, materiala aurkezteko orduan lanaren jatorrizko izenburua eta goiburua (lanaren izenburuaz bestelakoa izan beharko du) agertuko dira material guztietan, eta ez dute egilearen/egileen izena adieraziko orrialde bakar batean ere.

Lehiaketara aurkeztutako obrak **gutun-azal handi batean bidali behar dira, honako hauekin batera:**

- **Aurkeztutako obraren partitura (score)**, erabili den instrumentu-txantilo osoarekin. **Ez da gidoirik bidaliko partituraren ordez.**
- Obra bakoitzerako hautatutako txantiloietan erabili diren musika-tresnei dagozkien **banakako materialak (partixelak)**.
- Pendrive euskarrian aurkeztutako obraren **grabazio bat**, soinu estereoarekin eta gutxieneko kalitate onargarriarekin, hobeto entzuteko. Ahal izanez gero, zuzeneko musikariek interpretatutako obren grabazioak aurkeztuko dira edo, bestela, bitarteko elektronikoen bidez erreproduzitutako obren grabazioak.
- Aurkeztutako obrari buruzko **iruzkin** idatzia (ikusmolde edo motibazio artistikoa, obraren egitura edo zatiak, erabilitako baliabide erritmikoak, harmonikoak eta tinbrikoak, txantiloian adierazitako musika-tresnak konbinatzeko asmoa, eta abar.).

Partitura finalistak lehiaketaren c) fasean aurreikusitako kontzertuan interpretatzeko erabiliko direla kontuan hartuta, egileek partitura eta material horiek ahalik eta irakurgarritasun handienarekin prestatu beharko dituzte, obraren beraren mesedetan eta obra interpretatuko duten musikarien mesedetan.

Gutun-azal handian beste gutun-azal txikiago bat ere sartuko da, goiburu berarekin eta itxita, eta honako hauek edukiko ditu barnean:

- oinarri hauei erantsitako **izena emateko fitxa**, behar bezala beteta.
- **obra SGAEen erregistratuta dagoela adierazten duen fitxa edo SGAEen aurkeztutako obra erregistratzeko izapidetan dagoela adierazten duen deklarazioa.**
- **NANaren edo pasaportearen fotokopia.**
- egileen **curriculum vitae laburra**, hogeileerrokoa, gehienez.

Gutun-azal txikia zorrotz kontrolatuko dute antolatzaileek, eta lehiaketaren berezko kudeaketa logistikoak egiteko baino ez dute erabiliko. Oinarri hauetan jasotako sari ofizialak eman ondoren bakarrik jakingo du epaimahaiak irabazleak nor diren, azken Aktaren idazketan haien izenak jasotzeko.

Oinarri hauetan oinarrietan adierazitako materialak aurkezten ez badira, obra/k lehiaketatik kanpo geratuko da/dira automatikoki.

7.

Lana aurkezteko azken eguna **2024ko irailaren 2a** izango da posta ziurtatuz, mezularitza zer-bituz, edo zuzenean entregatuz SGAE Fundazioan (Bárbara de Braganza 7, 28004 Madrid, Espainia), edo SGAEk Espainian eta atzerrian dituen egoitza eta ordezkaritza nagusietan (www.sgae.es). Bide telematikoz ere aurkez daiteke, helbide honetara bidalita: mnietot@fundacionsgae.org.

Dokumentazioa bide telematikoz aurkeztuz gero, lehiaketaren antolatzaileek bide horretatik aurkeztutako obren anonimotasuna ziurtatuko dute, epaimahaiak ez dezan parte-hartzaileen nortasuna ezagutu eta, horrela, epaimahaiaren neutraltasuna eta lehiakideen aukera berdintasuna bermadaitezen.

Epe hori amaituta, zigilu-markan edo mezularitzaren gordekinean deialdiaren itxiera-data baino lehenagokoa edo bat datorrena duten bidalketak baino ez dira onartuko. Baliabide telematikoen bidez bidali badira, irailaren 2ko 23: 59ak arte (CET) bidalitakoak onartuko dira.

8. **Epaimahaiaren azterketa** honako hauetan oinarrituko da: **obren originaltasuna sormenaren aldetik, arriskua, kalitatea**, estiloaren eta generoaren berezko prozedura melodiko, tinbriko, estruktural, harmoniko eta kontrapuntistikoegi egindako **ekarpena edo berrikuntza**, bai eta lehiaketako formatuen arabera oreka instrumentala, hartzailarekin duen komunikazioa eta adierazpen-edukiaren transmisio eraginkorra ere.

Musikariak inprobisatzaile gisa nabarmentzeko egileak partituran adierazten dituen **solo instrumentalak** epaimahaiak ez ditu kontuan hartuko azterketa-material nagusitzat, baina artistikoki baloratuko da horiek obraren testuinguru orokorrean txertatzea.

9. Onartutako partitura guztien artean, epaimahai batek obra finalistak aukeratuko ditu eta sariak emango ditu. Epaimahaiak SGAEko Jazz Lantaldeak eta SGAE Fundazioak izendatuko du, eta bost (5) kidek, musikagile, interprete eta jazz aditu nabarmenek osatuta egongo da. Batzorde horretan ezin izango dute parte hartu SGAEko Jazz Lantaldeko kideek, ez eta SGAE Fundazioaren Patronatuko kideek ere.

Epaimahaiaren erabakia 2024ko urriaren 7a baino lehen jakinaraziko da.

10. **Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da**, eta sariak banatuko ditu oinarri hauetan datorrenaren arabera. Epaimahaiak lehiaketako sari guztiak edo batzuk eman gabe utzi ahal izango ditu. Era berean, epaimahaiak lau sari nagusietako bat *ex aequo* (partekatua) ematen badu, irabazleek sari horren zenbatekoa jasoko dute, eta kopurua **irabazleen artean banatuko da zati berdinetan**.

11. Lau sari nagusietako bat jasotzen duten musikagileek honako diru-kopuru hau jasoko dute, eurotan:

Lehen saria.....	6.000 euro
Bigarren saria.....	3.000 euro
Hirugarren saria.....	1.500 euro
Laugarren saria.....	1.200 euro

Espainian indarrean dagoen legeriaren arabera, sariak zergak ordaindu beharko dituzte, bai espainiarrek, bai atzerritarrek, nahiz eta irabazleak Espainiako lurraldean edo kanpoan bizi.

12. Saritutako obren egileek lehiaketa honetan lortutako saria aipatzeko konpromisoa hartuko dute erakusketetan, jendaurreko kontzertuetan edo horien beste edozein komunikazio-ekintzatan. Horretarako, agiri bat sinatuko dute SGAE Fundazioarekin, eta ezin izango dute saria kobratu konpromiso hori hartu ezean.

13. Epaimahaiak erabakia hartu eta hurrengo hogeita hamar (30) egunetan bakarrik gordeko dira sarituak izan ez diren obren agiriak. Epe horretan, berariaz eskatutako itzulketak bakarrik egingo dira. Adierazitako epea igarotakoan, dokumentazioa eta materialak suntsitu egingo dira.

14. Parte hartuko duten musikagileek SGAE eta SGAE Fundazioa erantzukizun orotatik salbuesten dute, baldin eta beren obraren bidez plagiorik edota jabetza intelektualaren arloan indarrean dagoen lege-urraketarik egingo balute.

15. Musikagileek, lehiaketan parte hartzen duten heinean, sariaren oinarri hauek bete-betean onartzen dituzte, baita epaimahaiaren erabakiak ere. Erreklamaziorik edo gatazkarik egonez gero, parte-hartzaileek eta sariaren antolatzaileek Madril hiriburuko (Espainia) auzitegien jurisdikzioari men egin beharko diote, eta gaztelaniazko testua hartuko da ofizialtzat.

JAZZ OBRETARAKO SGAE-REN TETE MONTOLIU V. LEHIAKETA 2024-2025

IZENA EMATEKO FITXA¹

Obraren titulua: _____

Goiburua _____

Formatua (Jarri gurutzea): ☐ Bakarlaria ☐ Bikotea ☐ Hirukotea ☐ Laukotea

Izena(k) eta abizenak:* _____

[*] Obrak egile bat baino gehiago badu, fitxa honen eranskin edo fotokopia bat erantsi beharko da, bakoitzak bere datuak beteta.

DATU PERTSONALAK

SGAEko bazkide zk. _____ Helbidea: _____

Posta-kodea: _____ Herria: _____

Probintzia: _____ Herrialdea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Sinadura: _____

¹Partaidetza-fitxa hau sinatuta, eskatzaileak baimena ematen dio SGAE Fundazioari bere datu pertsonalak erabiltzeko, lehiaketan den artean beharrezkoak diren kudeaketa guztiak egin ditzan.

SGAE Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, Espainiako zuzenbidearen arabera eratua fundazio baten forma juridikoarekin, eta Fundazioen Erregistroan behar bezala inskribatuta dago 314 zenbakiarekin. Bárbara de Braganza kaleko 7. zenbakian du helbide soziala, eta G-81624736 zenbakiko IFK du.

Bere helburuen artean daude, besteak beste, musika-lanak eta horien egileak (konpositoreak eta letristak) sustatzea, obra horiek balioesteko eta zabaltzeko kultura-sustapena egitea eta SGAEko bazkideen eskubide moralak defendatzea. Horretarako, besteak beste, laguntzen, sarien, lehiaketen, jaialdien eta egile-eskubideen prestakuntza- eta hedapen-jardueren deialdia egiten du, bai eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketa- eta administrazio-egintza guztiak ere.

ESKATZAILEAK ADIERAZTEN DU agiri hau sinatuta jakinararen gainean EMATEN DUELA BAIMENA bertan emandako datuak SGAE Fundazioaren fitxategi batean sartzeko. Fitxategi hori soilik erabiliko da lehiaketa honetako parte hartzea kudeatzeko eta SGAE Fundazioaren jarduerari buruzko aldizkako informazioa bidaltzeko. Formulario honekin, **BERARIAZ ONARTZEN DUT** nire datuak helburu horietarako erabiltzea. Era berean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB Erregelamenduaren arabera (pertsona fisikoak babesteko datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa), eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa aintzat harturik, **BADAKIT** eskubidea dudala aurka egiteko, dauetara sartzeko, mugatzeko, ezabatze, zuzentzeko eta eramateko eta erabaki individual automatizatuaren xede ez izateko. Horretarako, idatzi bat bidali behar dut nire izen-abizenekin, helbidearekin eta NANaren fotokopiarekin, eta erabilitako eskubidea eta idatziaren motiboa azaldu, helbide honetara: informacion@fundacionsgae.org. Era berean, **BADAKIT** erreklamazioak aurkez ditzakedala Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan.

SGAE Fundazioak lehiakideak emandako datuak edukiko ditu, lehiakideak SGAE Fundazioaren jarduerari buruzko informazioa jaso nahi duen bitartean eta aipatutako baimena ezeztatzen ez duen bitartean; ezeztatze, behar bezala jakinarazi beharko dio SGAE Fundazioari.

